

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko MARTXOA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %0,9 jaitsi dira 2024ko martxoan

Lehen hiruhilekoko metatuen, salmentak %0,6 jaitsi dira, baina langile okupatuak %2,1 gehitu dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %0,9 gutxitu ziren 2024ko martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

2024ko otsailari dagokionez, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, prezio finkoetako salmentak %2,9 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Elikaduraren sektorean, prezio finkoetako salmentak %2,7 gutxitu dira hil artean. *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, salmentak %3,1 jaitsi dira.

Urte artean, 2024ko martxoan eta 2023ko martxoan, prezio finkoetako salmentak %0,3 gehitu dira *Elikaduran*; *Gainerako produktuetan*, berriz, %3,2 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,9	-2,9	-0,6
Araba/Álava	1,6	-2,2	0,9
Bizkaia	-3,2	-3,8	-1,8
Gipuzkoa	2,5	-1,6	0,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	0,3	-2,7	0,3
Gainerako produktuak	-3,2	-3,1	-2,3
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,7	0,0	2,1

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko martxoan azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %2,5 gehitu dira urte artean Gipuzkoan eta %1,6 Araban; Bizkaian, berriz, %3,2 jaitsi dira, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako enplegatuak %1,7 gehitu dira 2023ko martxoaren aldean. Hilabete arteko datuei dagokienez, langileen indizea konstantea izan da.

Lehen hiruhilekoko metatuan, salmentak %0,6 jaitsi dira; %0,3ko igoera *Elikaduran* eta %2,3ko jaitsiera *Gainerako produktuetan*. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia bakarrik izan ditu datu negatiboak hiruhilekoko salmenten metatuan (%1,8). Araban eta Gipuzkoan %0,9ko igoera izan da bi kasuetan, hori guztia prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan. Enplegatuak %2,1eko gehikuntza metatua izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzenduta dituzten serieetatik abiatuta kalkulatu dira, eta hilabete artekoak urtaroen eragina kendutakoetatik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea **%89,2ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62